

2026ko martxoa



Gaztelaniazko “por” guztiak ez dira “-gatik”

Gaztelaniaren eraginpean, euskaraz *por* preposizioa *-gatik* bidez itzultzeko joera dago sarri askotan. Hala ere, gaztelaniazko *por* guztiak ez dute kausa adierazten, eta horrek nahasmendu semantikoak sortzen ditu. Interferentzia horrek egitura okerrak eta esanahi lausotuak eragin ditzake euskaraz, eta, beraz, euskaraz bestelako formak behar izan ohi dira esanahia zuzen adierazteko. Interferentzia horrek esaldi artifizialak eta esanahi desitxuratuak sortzen ditu usu. Horregatik, beharrezkoa da erabilera horiek aztertzea eta bereiztea.

KONTUAN HARTZEKO ZENBAIT GOMENDIO:

Por banatzailea → bakoitzeko / -ko

- Ikasle bakoitzak hiru ariketa egun **bakoitzagatik** egin behar ditu. ***
- Ikasle bakoitzak hiru ariketa **eguneko** egin behar ditu.
- Prezioa: 15 euro kilo **bakoitzagatik**. ***
- Prezioa: 15 euro **kiloko/kilo bakoitzeko**.

Por (egilea) + esaldi pasiboa → ergatiboa

- Artikulua irakasle **batengatik** idatzi da. ***
- Artikulua irakasle **batek** idatzi du.
- Eraikina arkitekto ezagun **batengatik** diseinatu zen. ***
- Eraikina arkitekto ezagun **batek** diseinatu zuen.

Por + erosi, saldu... → -(t)AN

- Zenbate**gatik** erosi duzu auto berria? ***
- **Zenbatean** erosi duzu auto berria?
- Metro koadroa 3.390 **eurogatik** saldu du. ***
- Metro koadroa 2.290 **euroan** saldu du.

Por galderan → -z / -ri buruz

- **Proiektuagatik** galdetu didate. ***
- **Proiektuaz** galdetu didate.
- Gai **horrengatik** hitz egin dugu. ***
- Gai **horri buruz** hitz egin dugu.

Por → -en ordez

- **Zugatik** sinatuko dut dokumentua. ***
- **Zure ordez** sinatuko dut dokumentua.
- Hitz **horrengatik** beste bat erabil dezakezu. ***
- Hitz **horren ordez** beste bat erabil dezakezu.



Ohiko erdarakadak

✗ **Anek jo egin dit.**



✓ **Anek jo egin nau.**

✗ **Nik Mikeli jo diot.**



✓ **Nik Mikel jo dut.**

✗ **Zuk Iratiri ostikada jo diozu.**



✓ **Zuk Iratiri ostikada eman diozu.**



jo


Jo aditza **NOR-NORK** erakoa da; hau da, *du, dut, nau, zaitut...* aditz laguntzaileak erabiltzea eskatzen du. Ezin da **NOR** erako laguntzaileekin erabili. Hartzailea eta kolpea, biak adierazi nahi izanez gero, **EMAN** aditza erabili beharra dago:



Egin kontu!

EUSKARAZ BAI, BAINA NOLA?

Zuen laguntza behar dugu Egin kontu! atala elikatzeko. Inguruan ikusten dituzuen kartel, mezu, idatziak... bidali eta egoki nola idatzi behar diren azalduko dugu. Noski, jatorria eta egilea isilpean mantenduko ditugu, helburua akatsetatik ikastea da eta!



DIRUA ≠ ESKUDIRUTAN
BETAURREKOEN ITZULERA ≠ EDALONTZIAK ITZULTZEKO GUNEA